

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

88/2021 Mozioa, azaroaren 18koa, olibak biltzeko erabilera komunitarioko aterki-makina eskuratzea aztertzeko

Arabako Batzar Nagusi hauetako Nekazaritza VIII. Batzordeak, 2021eko azaroaren 18an egin-dako bilkuran, honako mozioa onetsi zuen:

88/2021 Mozioa, azaroaren 18koa, olibak biltzeko erabilera komunitarioko aterki-makina eskuratzea aztertzeko.

1. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote jarrai dezala Arabako Lurralde Historikoan olibondoaren laborantza babesten, landaketa berriak sustatzen, eta olibondozainei laguntza teknikoa ematen.

2. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote ezen, APRORA Elkartearekin batera, azter dezala modu esperimentalean olibak batzeko bibragailua duen aterki-makina bat eskuratzeko aukera, erabilera komunitariorako, APRORA Elkartearekin koordinatuta betiere.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko azaroaren 18a

Presidentea

PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA